Alde Zaharrean kokatuta dagoen Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikotik Liburutegiari buruzko DESIDERATA KOMUNITARIOAN agertzen diren zenbait puntutan gure ideiak aportatu nahi ditugu, Liburutegi horretako erabiltzaileak izanen garen aldetik.
Alde Zaharreko Liburutegia diseituko dutenek kontutan hartuko dutelakoan.

IZENAREN PROPOSAMENA

"Pablo Antoñana"- ren izena jartzeko proposamena egin zen Iruñeko Udaletxean eta egokia iruditzen zaigu.

IRAKURKETA BULTZATZEKO JARDUERAK (interesgarriak iruditzen zaizkigun bisitak, programak,.... hezitzaileak garen aldetik)

- Gure eskolan dagoen Liburutegiko Batzordearekin koordinaketa egin
- Liburutegiko bisita gidatuak egin, bertan dagoena eta erabiltzeko animatzen duten haurrei zuzendatuko jarduerak
- Liburutegiko karneta potentziatu.
- Liburuaren egunean eskolan liburuaurkitzaileak egin.
- Eskolan lantzen diren zenbait gaiei buruzko maleta bidaiariak prestatu bertan erabiltzeko.
- Eskolan antolatzen ohi den Kulturartekotasun Astean Liburutegiak parte hartu bere txokoa izanik edota jardueraren bat antolatuz.
- Ipuin kontalarien saioak hizkuntza desberdinetan programatu eta teknika desberdinak erabiliz: Kamishibai, txontxongiloak,...
- Eskolan egiten ohi diren idazleekin topaketak koordinatu Alde Zaharreko Liburutegian idazle horien fondoak edukitzeko.
- Haur eta Gazte Literaturan interesatuta dauden pertsonekin (irakasleak, gurasoak, beste pertsonak,....) Irakurle Klubak sortu eta indartu.
- Irakurketa gidak editatu (idazleen inguruan, gaien inguruan,...)
- Haur eta Gazte Literaturan argitaratzen diren kalitatezko liburuekin gidak urtero editatu.
- Berdin egin oporretarako irakurketa gidak editatzen.
- Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin adituen hitzaldiak, eztabaidak antolatu.
- Urtean zehar eta gai desberdinei buruz hainbat erakusketa egin liburuekin, CD, bideokin,....
- Idazle eta ilustraileekin topaketak antolatu eta planifikatu
- Familiei hitzaldiak eman liburu eta irakurketa gidak aditzera emateko.

BERTAN FONDOETAN EGONEN DIREN HIZKUNTZAK (gure ikaslegoaren arabera)

D ereduko eskola dela eta A/G ereduan etorkin kopurua oso altua dela ere kontutan hartuta, Liburutegiko fondoak euskaraz aberatsak izan behar direla pentsatzen dugu, ingelesez ere eskolan ikasten duten mailara egokitutako liburuak ongi egonen lirateke, eta eskolan dauden zenbait ikasleek erabiltzen dituzten beste herrialdetako hizkuntzak ere fondoetan egotea komenigarria ikusten dugu. Azken honetan, eskolak eman zezakeen informazioa dituen ikasleen arabera.

ESPAZIOAK

Haurrentzako gunea gainerako geletatik berezitako espazio bat izan beharko litzateke, egokia beraientzako eta fondoak eskura dituena.
Oso interesgarria da ere Bebeteka izeneko gunea, txikienentzako egokitutako espazioa izanik, bertan beren gurasoekin batera liburuaz gozatzeko aukera ematen duena.
Zaraten gaia ongi kontrolatu.

FONDOAK

Anitza, soportei (liburuak, CDak, DVDak, aldizkariak, prentsa,...), hizkuntzei eta adinei dagokienez. Fikziozko literatura eta beste gaien fondo asko eta kalitaztekoak dituena.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Liburutegia eta eskolaren artean informazioa, esperientziak,.... konpartitzea ahalbidetuko lukeen espazio on-line bat edukitzea ongi legoke (wiki, web,...). Bertan, liburuak komentatzeko foro bat egon liteke, baita ere fondo, jarduera, berrikuntzen,.... berri eman daiteke. Eskolatik horrelako batean parte hartzea gure ikasleen eta Auzkoko Liburutegiaren harremana eta komunikazioa potentziatuko litzateke.

Mila esker gure ideiak emateko aukera emateagatik DESIDERATA KOMUNITARIO honen bidez.

Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoko irakaslegoa

Así es como queremos que sea la Biblioteca del Casco Viejo en el Colegio Público San Francisco, como escuela del Casco Viejo y en calidad de usuarios/as de la Biblioteca nos ha parecido importante aportar algunas ideas en algunos de los puntos expuestos en la DESIDERATA COMUNITARIA sobre el tema.
Esperamos que sean tenidas en cuenta por las personas que se encanguen de su diseño.

PROPUESTAS DE NOMBRE:

En el Ayuntamiento se presentó una moción para que se le pusiera el nombre de "Pablo Antoñana", y nos parece adecuado.

ACTIVIDADES DE ANIMACIÓN A LA LECTURA (visitas, programas,.... que nos parecen interesantes como educadores/as)

- Coordinar con la Comisión de biblioteca que existe en nuestra escuela.
- Visitas guiadas de la biblioteca, con actividades lúdicas que den información de lo que hay y les animen a su uso
- Potenciar el carnet de la biblioteca.
- Realizar puntos de lectura en la escuela el día del libro.
- Realizar maletas viajeras para su uso en la escuela durante un tiempo en función de temas que estamos trabajando.
- Participación de la Biblioteca en la Semana Intercultural del centro aportando un rincón o celebrando alguna actividad en la escuela referente al tema de trabajo.
- Incluir sesiones de cuenta-cuentos en diferentes lenguas y utilizando diferentes técnicas: Kamishibai, títeres... en su programación
- Coordinar los encuentros con autores que realizamos en la escuela para que la biblioteca tenga fondos bibliográficos de los mismos.
- Crear y fomentar clubs de lectores en los que podrían participar personal de la biblioteca, profesorado del centro, madres y padres y personas interesadas en Literatura Infantil.
- Editar guías de lectura en torno a diferentes, autores/as, temáticas...
- Editar guías anuales con reseñas de libros de calidad que se publican en Literatura Infantil.
- Editar guías con recomendaciones de libros para vacaciones...
- Organizar charlas, conferencias de expertos en torno a la importancia de la lectura y su fomento entre los niños/as.
- Exposiciones de libros, CDs, videos...en torno a diferentes temáticas que van surgiendo a lo largo del año.
- Planificar encuentros de forma sistemática con autores e ilustradores.
- Charlas a familias dando ideas sobre elección de cuentos o guías de lectura.

PRESENCIA DE LENGUAS DIFERENTES (en función del alumnado que tenemos,....)

Teniendo en cuenta que es una escuela de modelo D por un lado y de que además entre el alumnado del modelo A/G hay alumnos y alumnas que conocen otras lenguas de sus lugares de origen, la presencia de fondos bibliográficos amplios en euskera para la edad de nuestro alumnado es necesaria, asimismo en inglés sería necesario que hubiese bibliografía adaptada a su nivel de la lengua.
Respecto a otras lenguas la escuela podría informar a la biblioteca de otras lenguas que se conocen por los niños y niñas del barrio.

ESPACIOS

Espacio diferenciado y adecuado para el público infantil, en el que el fondo bibliográfico esté a la vista y sea accesible.
Muy interesante es también la Bebeteca, un espacio adaptado a los más pequeños para que acompañados de sus padres y madres puedan disfrutar de los libros.
Cuidar el tema de los ruidos.

FONDOS

Debe ser variado en cuanto a soportes (libros, CDS, DVDs, revistas, prensa...) en cuanto a idiomas, y edades, con fondo abundante de ficción y de las diferentes temáticas y primando en todo ello la calidad.

NUEVAS TECNOLOGÍAS

Estaría bien la existencia de un lugar on-line que posibilitara el que se compartieran experiencias entre la escuela y la biblioteca, podía incluirse un foro para comentar libros en el que puede participar el alumnado de la escuela, asimismo informaciones sobre los fondos, novedades, actividades,... y que podríamos visitar desde la escuela potenciando la relación y comunicación con la biblioteca del barrio.

Muchas gracias por habernos dado la ocasión de plantear nuestras ideas sobre la Biblioteca del Casco Viejo a través de esta DESIDERATA COMUNITARIA.

El profesorado del C.P. San Francisco

6gn. A mailakook honako Liburutegia "DESIDERATZEN" DUGU:

.- Liburutegi polita nahi dugu. Lehengo liburutegia, margo berde tristez margotua zegoen. Aldatzekotan, beste kolore batzuk nahi ditugu. Adibidez: Laranja, urdin argia, morea, berde pistatxo... ALAIA!!!!

.- Bertan lan egingo duten pertsonak, atseginak izan behar dira. Hor lan egiten dutenak, ez dira errobotak. Hau da: kaixo esan, agur esan eta aurpegira begiratu. Alai egon daitezen, edo gutxienez... saiatu. Liburu bat bere epetik kanpo ekartzen baldin baduzu ez haserretzeko.

.- Liburuak, pelikulak eta gainerako materialak agerian egotea eta adinaka sailkatuta egon daitezen, denon begi bistan egon daitezen.
Gure ustez, liburutegi batean, liburuak sailkatutak egon behar dira. Hau da, haur batek, bere adineko gauzak hartzeko, toki batean begiratu behar du.
Adibidez: toki batean haurrena egotea, hiru urteko liburuak apal batean; lau, bost, sei eta zazpikoak beste apal batean; zortzi, bederatzi eta hamar, beste apal batean, hamaika, hamabi, hamahiru eta hamalaukoak beste batean. Berriz, pertsona handiagoentzat, beste leku batean. Hori gustatuko litzaiguke gure auzoko liburutegian.

.- Mailegurako epea motza bada, ez digu denbora ematen irakurtzeko. Isuna jartzea zilegia da baina epe luzeagoarekin. Beraz, pertsona bakoitzak kalkulatuko duen beharrezkoa duen epea eta, honela, bete egingo du.

.- Ikasteko gela egon behar du: gela batean mahaiak eta eserlekuak... ikasteko hormaiduriak eta hiztegiak.

.- Dohaineko ordenagailuak ere egon beharko lukete, bai liburuak bilatzeko bertan, bai behar duzun informazioak edota filmak bilatzeko eta deskargatzeko.

.- Fotokopiagailu bat egotea beharrezkoa da ere; liburu batean, intereseko duzun informazioa aurkitzen baduzu, fotokopiagailuan kopia bat egiteko aukera izan behar duzu, etxera eraman ahal izateko.

.- Ondoko mini sala batean, telebistak, VHS, 8mm, CD eta DVD gailuak egon behar dute, eserleku egoki batzuekin, filmak ikusi ahal izateko.

.- Ludoteka bat egotea nahi dugu. Zergatik?
Oso errexa da. Gurasoak lasai egoteko, umerik gabe. Umeak pertsona heldu batekin egonen dira. Pertsona horrek zainduko ditu.
Ludoteka adinaka egonen da sailkatua, txikiak alde batean eta haundiak bestean. Txikientzako liburu asko marrazkiekin eta ipun kontalariarekin batzutan. Haundiak, zortzi urtetik 13 urtetaraino, beraientzako bost ordenagailu izango lituzkete online jokuekin.

Ludotekak, astean behin, taillerrak antolatuko ditu, bertan karetak, marrazkiak... egingo dituzte txikienek.

Bertan ere... ipuin kontalaria nahi dugu, ludotekan jolasteko eta ume txikiak edo adinaka, ipuin politak entzuteko. Doahinik izatea eta ipuinak euskaraz izatea, edo beste batzuk erderaz.

.- Kafetegia egotea komenigarria liteke ere, horrela, ikasten ari zaren bitartean, edo behar den gauzak egiten ari zarenean, gurasoak ez lirateke aspertuko kafe bat hartzen dutelarik.

.- A! Eta jakina! pertsona batek komunara joateko eskatzen duenean.... beharra duela esan nahi du!

HAU GUZTI HAU, "DESIDERATZEN" DUGUNA DA.
ZIUR ESKAERA EGOKIAK DIRELAKOAN, HALAXE BETETZEA ESPERO DUGU!

6. A mailako ikasleak

La biblioteca que nos gustaría.....

A los niños y niñas de 6º A/G nos gustaría que la biblioteca fuera así:

- Accesibilidad para todos. Rampas y ascensores para las personas que necesitan silla de ruedas.

- Personal que nos ayudara a elegir libros o nos recomiende cuando no sepamos qué libro coger.

- Que haya muchos libros de aventuras, historias románticas, novelas de misterio y terror.....y lo más importante, en diferentes idiomas para que todos podamos disfrutar de la biblioteca.

- Que los niños más pequeños tengan una sala adecuada para poder leer, dibujar.

-Sala de ordenadores donde poder trabajar de forma gratuita para los usuarios de la biblioteca.

-Nos gustaría que hubiera una sala de estudio amplia con muchos asientos y mesas.

- También debería haber un espacio con libros en Braille para las personas invidentes.

- Para los más creativos, podría haber un lugar donde poder escribir cuentos para los más pequeños.

- Cada cierto tiempo, nos gustaría que una persona acudiera a la biblioteca a contar cuentos e historias para todas las edades.

- Sería necesario que pudieramos disponer de un carnet para llevar los libros a casa en préstamo.

¡ QUEREMOS UNA BIBLIOTECA PARA TODOS!

Alumnado de 6º del modelo A/G

NOLAKOA NAHI DUZU LIBURUTEGIA?
¿CÓMO TE GUSTARÍA QUE FUERA LA BIBLIOTECA?

ALDE ZAHARREKO LIBURUTEGIA

Bazen behin herri batean liburutegirik gabe bizi zen jendea.
Herrikoiak oso triste eta aspertuta bizi ziren liburutegirik ez zutelako. Egun asko pasa zituzten horrela, liburutegirik gabe. Haurrek irakurtzen ikasi zuten baina ez zeukaten zer irakurri. Etxean pasatzen zituzten gaua eta eguna ezer egin gabe, triste. Beraien ametsa, liburutegi zoragarri eta handi bat izatea zen. Eskolan zeudenean bakarrik pentsatzen zuten liburutegian. Irakasleak ere oso triste zeuden gelarako behar zituzten liburuak ez zituztelako aurkitzen eta urrutiago zegoen herri bateko liburutegira joan behar izaten zuten liburuen bila.

-Guk nahiko genuke areto nagusi moduko zerbait izatea, horrela antzerkiak eta pelikulak jarriko genituzke -esaten zuten batzuek

-Guri hizkuntza askotako liburuak izatea gustatuko litzaiguke -aipatzen zuten beste batzuek.

Egun batean Liburulandiako ingeniero bat iritsi zer herrira. Herriaren kale Nagusian agertu zen bere kamioiarekin. Alkatea, harrituta, berarengana joan zen. Hizketan hasi ziren:

-Zer nahi duzu eta nondik zatoz?-galdetu zuen alkateak.

-Liburulandiatik nator eta kanpaina bat egiten ari naiz herri guztietan liburuak ezagutarazteko eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko.

Alkateak, batetik pozik, bestetik urduri, honela erantzun zuen:

-Hori zen herrian behar genuena, baina ez dugu liburutegirik.

-Lasai, hori ez da arazoa. Nik ere eraiki dezaket liburutegia.

-Liburutegia! Gure ametsa!-alkateak.

-Orduan, noiz hasiko gara eraikitzen?-proposatu zuen langileak.

-Itxaron bizpahiru egun; herriko jendeari galdetu behar diogu nolako liburutegia nahi duen. Ziur naiz ideia pila bat izango dutela.

-Oso ondo, itxoingo dut eta galdetzen duzunean deitu ahalik eta lasterren.

Alkatearen deia egin bezain laster, neska-mutil guztiak elkartu ziren eta batzarre bat egin zuten herriko plazaren erdian.

- A ze nolako liburutegi polita izan ahal dugun!- bururatu zitzaion bati.
- Honekin gu oso pozik egongo gara, irakutzen eta jolasten!-besteak
- Baita ikasten ere!-txikienak

Neska mutilak hitz egiten hasi ziren ilusioz beterik. Haien artean modu ezberdinetan erantzuten zuten, batzuentzat sinestezina zelako liburutegi bat izatea. Beti ametsetan liburutegi batekin eta orain eskola eta etxe ondoan: amets bat ote zen? Egia ote zen? Batzuk harrituta, baina pozik. Beste batzuk, aldiz, alaitasuna aurpegian.

Herriko helduak ere oso pozik zeuden eta, umeak bezala, denek horri buruz hitz egiten zuten, ez zegoen beste gairik, hori zen etxez-etxe zebilena. Jendea kontu-kontari.

-Nolakoa izango ote da?-galdetzen zioten haien buruari.

-Zuek nahi duzuen modukoa- erantzuten zien alkateak .

Azkenik, denak plazan zeudela, herriko alkateak honako galdera egin zuen:

-ZER NOLAKO LIBURUTEGIA NAHI DUZUE? Gure esku dago nahi dugun Liburutegia eskatzea, horretarako bildu gara. Guztion ideiak elkartzen baditugu, ziur naiz liburutegi zoragarri bat izatea lortuko dugula, egin didaten proposamena ona da eta.

Jendea barruan zituen ideiak kanporatzen hasi zen. Denen artean dokumentu bat idatzi zuten bertan ideia hauek agertzen zirelarik:

- Liburutegi handia nahi dugu pertsona asko sartzeko: handiak, txikiak, ertainak, irakurtzea gustoko dutenak, hain gustoko ez dutenak, gazteak...denentzako liburutegia.
- San Frantzisko plazan kokaturik egotea nahi dugu, gure auzoan eta gure etxetik eta eskolatik gertu; azken finean, Alde Zaharreko neska-mutilak gara.
- Gure auzoan dagoen liburutegiak liburu asko izan behar ditu eta liburu horiek hizkuntza askotan, munduko hizkuntza guztiko liburuak izatea nahiko genuke. Hori bai, liburu asko eta asko ere euskaraz, ikasten ari garen hizkuntzan.
- Gustatuko litzaiguke baita ere istorio ezberdinak aurkitzea gure liburuetan eta gure Historia ere bai, Iruñeko historia, guk bizi ez duguna ezagutzeko.
- Ludoteka izatea ondo legoke.
- Ordenagailuak izatea ere nahiko genuke eta beste areto bat etxerako lanak egiteko, modu horretan elkarrekin lan egingo genuke inor molestatu gabe.
- Gustu askotako liburuak jartzea ideia ona izango litzateke.
- Guk nahiko geuke ludoteka moduko bat egotea jokuekin eta horrelako gauzekin; zonalde bat txikientzako eta beste bat handientzako, beste joku motekin.
- Antzerkiak egiteko, pelikulak ikusteko eta horrelako ekintzak egiteko ere areto bat izango balu, denbora asko pasako genuke.
- Guk nahi dugun liburutegian jarduera asko prestatu ahal dira. Guri gustatuko litzaiguke ipuinak eta istorio politak entzutea heldu batek irakurrita. Eskolako irakasleek ere aukera izango lukete bertan liburuak irakurtzeko ozenki eta irakurketa gurekin konpartitzeko.

Ingenieroa herrira itzuli zenean jendeak idatzitako ilusio eta asmoz beteriko dokumentu batekin topatu zen. Irakurri ondoren, alkate jaunarekin hitz egin eta lanari ekin zion. Hiru hilabete kostatu zitzaion herriak eskatutako liburutegia eraikitzea, bertan zegoen eraikuntza zaharra aprobetxatu zuten eta.

Herriko jendeak etxean zituen liburuak garbitu eta konpondu zituen liburutegira eramateko. Denbora gutxitan eta guztien esfortzuarekin bete egin zen. Uste baino lehenago txikiek bazuten bere ludoteka; handiek nahi zuten ordenagailu-gela eta pelikulak ikusteko aretoa. Eskolako neska-mutil handiek lan taldeak egiteko txokoa... eta horrela, guztien nahiak bete egin ziren.

Handik aurrera, herri hartan liburuz beteriko liburutegi handi eta polit bat izan zuten.
Denak oso ongi pasatzen zuten beraien liburutegian, oso gustora zeuden eta eskolatik gertu zegoenez, ez zuten urrutira joan behar.
Liburutegi berriarekin asko ikasi eta pozik bizi ziren. Herri hura planetan dagoen herririk zoriontsuena izan zen betirako.

6. B mailako ikasleak

5. MAILAN ALDE ZAHARREKO LIBURUTEGIRAKO PROPOSAMENAK

HAUR TXOKOA IZATEA, ETXEKOLANAK ETA IRAKURTZEN EGOTEKO. MAHAI ETA AULKIEKIN, HIZTEGIEKI ETA ENTZIKLOPEDIEKIN, ETA INTERNETEN KONTSULTAK ETA LANAK EGITEKO ORDENAGAILUREN BATEKIN. HELDUEN ZONALDETIK BEREIZTURIK DAGOEN TXOKOA.

LASAI EGOTEKO TXOKOA ALFONBRA BATEKIN ETA ESERLEKU EROSOEKIN IRAKURTZEN EGOTEKO.

ORDENAGAILUAK INTERNETEKIN NAHI DUENARENTZAT BAINA ERABILTZEKO DENBORA MUGATUTA (HELDUENTZAT ORDU BAT ETA HAURRENTZAKO ORDU ERDIA).

ETXETIK ERAMANDAKO ORDENAGAILU PORTATILEKIN ARITZEKO TXOKO ATSEGIN ETA LASAI BAT EGOTEA.

WIFIA IREKIA IZATEA.

TXIKIENTXAKO TXOKOAN TELEBISTA HANDI BAT ETA DVDAK PELIKULAK KASKOEKIN IKUSI AHAL IZATEKO (FILMOTEKA)

DEKORAZIOA ALAIA ETA LASAITASUNA SENTIARAZTEN DUENA IZATEA.

HAURRENTZAKO LIBURU, ALDIZKARI ETA DVD ASKO IZATEA.

NOIZBEHINKA IPUIN KONTALARIAK EGOTEA.

MUSIKAREKIN LOTURIKO TXOKO BAT EGOTEA. BERTAN MUSIKA TALDE EZBERDINEN DISKAK EGOTEA, BAI ETXERA ERAMAN AHAL IZATEKO, BAITA BERTAN ENTZUTEKO (KASKOEKIN) ERE.

NOIZBEHINKA EGUN BEREZIAK EGITEA. ADIBIDEZ, KOMIKIAREN EGUNA. EGUN HORRETAN KOMIKILARIAK JOAN DAITEZKE HAIEN LANAK AZALDU ETA ERAKUSTERA. .